

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

77/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen 2025erako deialdiari

Ekainaren 6ko 28/2023 Foru Dekretuaren bidez, Gobernu Kontseiluak 6961.1 esku hartzerako ("Nekazari gazteak ezartzea") laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen, Nekazaritza Politika Er-kidearen 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoaren esparruan, bai eta 2023ko laguntza lerro horren deialdia ere.

Nekazaritza ustategietan nekazari gazteak ezartzeko dirulaguntzak aurreikusita daude landa garapenerako (FEADER) programatu den 6961.1 zenbakiko esku hartzean, Espainiako NPBren Plan Estrategikoaren barne. Plan hau 2022ko abuztuaren 31n, Europako Batzordeak onartu zuen, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez.

Arabako Foru Aldundiaren 2025erako gastuen aurrekontuan badago partida bat, 40101. G/414400/77000424 "Nekazari gazteak enpresak sortzea 2025" izenekoa, eta saldo nahikoa dauka. Hortaz, proposatzen da onestea laguntza horietarako 2025eko deialdia.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta, horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak propo-saturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea nekazari gazteak ezartzeko laguntzen 2025erako deialdiari (6961.1 esku hartzea), Gobernu Kontseiluaren ekainaren 6ko 28/2023 Foru Dekretuan xedatu-takoaren arabera arautuko da, honako xehetasun honekin:

a) Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliiodun, 2025eko deialdiari dagokion foru dekretua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliiodunean amaituko da.

b) Eskaerak aurkezteko modua eta lekua:

– Inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira dirulaguntza eskaera eta dirulaguntza ordain-tzeko eskaera.

– Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

– Laguntza eta ordainketa eskaerak bide telematikoz egin ahal izango dira, egoitza elektroni-koan horretarako dagoen izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-creacion-em-presas-jovenes-agricultores>).

Alabaina, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikokoan dagoen izapide zehatzaren bitar-tez telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektro-nikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

c) Inbertsioen moduluak: urtarrilaren 20ko 18/2025 Foru Aginduak onetsitakoak.

d) Laguntzaren zenbatekoak: laguntza honen oinarri arautzaileetan ezarritakoak (11. artikulua). 2025eko deialdirako honako zenbateko hauek zehazten dira:

i. Baremagarritzat jotzen diren inbertsioen eta gastuen gehieneko zenbatekoa (gehienezko): 300.000,00 euro.

ii. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa enpresa planean jasotako gastu eta inbertsioengatik (Y): 50.000,00 euro.

iii. Dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa (gutxienezko): 10.000,00 euro.

iv. Ekoizpen ereduetan, merkaturatze ereduetan eta ustiategiaren ezaugarrietan sartutako irizpideei aplikatu beharreko laguntzaren zenbatekoa: gehienez 20.000,00 euro orotara, eta 4.000,00 euro irizpide bakoitzerako.

Aurreko zenbatekoak dirulaguntza kalkulatzeko erabiliko dira, aipatutako 11. artikuluan jasotako formularen arabera:

$$\text{Gastu eta inbertsioen arabera dirulaguntza} = (Z - 10.000,00) \times 0,137931 + 10.000,00,$$

non, Z, enpresa planaren arabera barematu daitezkeen gastu eta inbertsioen zenbatekoa den.

e) Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2025erako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/77000424 "Nekazari gazteek enpresak sortzea 2025" partidaren kontura, urteka honela banatuta:

- 2025: 490.000,00 euro.
- 2026: 300.000,00 euro.
- 2027: 300.000,00 euro.
- 2028: 300.000,00 euro.
- 2029: 300.000,00 euro.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehun izango dira gehienez.

Nekazaritza ustiategietan nekazari gazteak ezartzeko dirulaguntzak aurreikusita daude landa garapenerako (FEADER) programatu den 6961.1 zenbakiko esku hartzean, Espainiako NPBren Plan Estrategikoaren barne. Plan hau 2022ko abuztuaren 31n, Europako Batzordeak onartu zuen, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA